

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2009/45/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 18koa, Malgutasun Tresna baliatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakundearteko Hitzarmenak, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoak, 27. paragrafoan xedatzen duenari jarraituz.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «**DECISIÓN 2009/45/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO**, de 18 de diciembre de 2008, relativa a la movilización del Instrumento de Flexibilidad, de conformidad con el punto 27 del Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 19/49 de 23/1/2009)

II

*(Derrigorrez argitaratu behar ez diren EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)*

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

**ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2008ko abenduaren 18koa,**

**Malgutasun Tresna baliatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakundearteko Hitzarmenak, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoak, 27. paragrafoan xedatzen duenari jarraituz**

(2009/45/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde-arteko Hitzarmena, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa [1], aztertu dute, eta bereziki, haren 27. paragrafoa.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Kontuan hartu dute 2008ko azaroaren 21eko hitzarmen-bileran Aurrekontu Agintaritzaren bi adarrek onartu zutela 2009ko aurrekontuan finantzaketa osatzeko Malgutasun-tresna mobilizatzea, 4. errubrikaren gehieneko mugen ginetik; guztira, 420 milioi euro. Hain zuzen ere, 420 milioi euro horiek erantzun azkarreko mekanismoa finantzatzeko dira, garapen bidean dauden herrialdeetan elikagaien prezioaren igoerari aurre egiteko.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

2009ko aurrekontu-ekitaldirako Europar Batasunak izango duen aurrekontu orokorrean Malgutasun Tresna erabiliko da, konpromiso-kredituen bidez 420 milioi euro emateko.

Zenbateko hori erantzun azkarreko mekanismoaren finantzaketa osatzeko erabiliko da, garapen bidean dauden herrialdeetako elikagaien prezioen igoerari aurre egiteko, 4. errubrikaren esparruan.

*2. artikulua*

Erabaki hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 18an.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Presidentea*

H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*

*Presidentea*

E. WOERTH

[1] C 139 EO, 2006.06.14koa, 1. or.